

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroa bere hornitzaileei bizkorren ordaintzen dien komunitatea izan da 2014aren amaieran, 20 eguneko batez bestekoarekin

Ministerioak egindako azken txostenaren arabera, EAEekin batera, fakturak legezko epearen barnean ordaintzen dituen eskualde bakararra da

Jueves, 12 de marzo de 2015

Nafarroa bere hornitzaileei bizkorren ordaintzen dien komunitatea izan da 2014. urtearen amaieran (20,05 eguneko batez bestekoa), Estatuko batez bestekoaren erdia baino gutxiago (50,83 egun). EAEekin batera, legezko epearen barnean egiten duen bakararra da, Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioak ezagutarazi duen [txosten](#)aren arabera.

2014ko irailetik administrazio publiko guztien ordaintzeko batez besteko aldiaren datuak jakinarazten hasi zirenetik (Estatua, Gizarte Segurantza, Autonomia Erkidegoak eta Toki Korporazioak), Nafarroa buru jarri da goiz ordaintzeari dagokionez; ondorengo batez bestekoak izan dituen bere datuak ere hobetu ditu: 23,4 egun irailean, 25,33 urrian, 24,61 azaroan eta 20,05 abenduan (aurreko hilean baino 4,5 egun gutxiago). Indize horrek honako hauen artean neurtutako batez bestekoa adierazten du: benetan ordaindutako fakturak ordaintzeko denboraren (abenduan 28,78 eguneko batez bestekoa Foru Komunitatean) eta oraindik ordaintzeke dauden fakturen arteko "antzinatasuna" (13,63 egun).

Abenduko datuak

Ministerioak abenduari buruz egindako txostenaren arabera, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoa (24,96 eguneko batez bestekoa) bakarrik izan ziren legeak ezarritako 30 eguneko epearen barnean ordaindu zutenak, Estatuko batez bestekoaren oso azpitik (50,83 egun); eta kontuan hartuz zifra hori 7,32 egunetan murriztu dela (% 12,59), azaroarekin alderatuz. Bien atzetik, beren hornitzaileei ordaintzen puntualenak honako autonomia erkidego hauek izan dira: Kanariak (44,61 egun), Asturias (45,61 egun) eta Galizia (51,19). Beste muturrean daude, Aragoi (114,11 egun), Valentzia (112,29) eta Extremadura (110,96 egun).

Ministerioak egindako txostenaren arabera, bederatzi autonomia erkidegok (Andaluzia, Aragoi, Balear Uharteak, Gaztela eta Leon, Gaztela-Mantxa, Katalunia, Madril, Extremadura, Murtzia eta Valentziako Komunitatea) berankortasun-arloko araudiaren gehieneko atzerapen-epea gainditzen dute; epe hori 30 egunekoa da kontratuen legean (hau da, faktura aurkezten denetik, 60 egun) ezarritako epea betetzen denetik (beste 30 egun) kontaktzen hasita.

Aurrekontuaren Egonkortasunaren eta Finantza Iraunkortasunaren Legea betez, ordaintzen ez duten administrazioek hornitzaileei ordaintzeko hileroko erabiliko dituzten baliabideen berri eman beharko dute, eta gastu, diru-sarrera edo kobrantzak nahiz ordaintzeta kudeatzeko beharrezko neurriak hartu beharko dituzte beren hornitzaileei ordaintzeko epea murrizteko. Ordaindu gabe jarraitzen badute, Estatua arduratuko da fakturez, kaltetutako lurralde-administrazioari finantzaketa-sistematik atxikiz.

Hornitzaileei ordaintzeko txostenen helburua (hilerokoak) da, herritarrek eta hornitzaileek jakin dezaten entitate bakoitzak legeak ezarritako gehieneko epea betetzen edo gainditzen duen. Administrazioek datu horiek jakinarazteko betebeharra [uztailaren 25eko 635/2014 Errege Dekretuan](#) ezarrita dago.